

HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK ERAKUNDEKO FUNTZIONARIOEN PLANTILLAN HUTSIK DAUDEN HOGEI KLINIKA LAGUNTZAILEEN PLAZAK JABETZAN HORNITZEKO HAUTAKETA PROZESUA

LEHIAKETA FASEAN MEREZIMENDUAK AURKEZTEA

Lehiaketa-fasea baloratu ahal izateko, oposizio-fasea gainditu duten hautagaiei eskatzen zaie alegatutako merezimenduen dokumentazioa aurkez dezatela, oinarrietan ezarritakoaren arabera. Eranskinean beherago zehazten da dokumentazioa.

Dokumentazioa webgunean dagoen ereduaren arabera aurkeztu behar da.

Aurkezteko epea: 2021eko otsailaren 26a, 14: 00ak baino lehen.

Aurkezteko lekua: Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erregistroan:

Telematikoki: www.hernani.eus

Aurrez aurrekoa: Sandiusterri kalea 1, Hernani.

Eranskina

7.4. Lehiaketa aldia.

7.4.1. Lehiaketa fasean, oposizio aldia gainditu duten izangaiek aurrez alegatu eta egiaztatu zituzten merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira.

Epaimahai Kalifikatzaileak, betiere hautaketa prozesuaren barruan, hamar egun baliოდuneko epe bat irekiko du, balioztatzeoak diren merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeo. Epaimahaiak, merezimenduak balioztatu eta izangai bakoitzari baremo horien arabera dagokion puntu kopurua esleituko dio.

Lehiaketa aldia ez da baztertzaileria izango, eta aldi horretan lortutako puntuak ezin izango dira kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

Eskarmentu profesionala: Gehienez 45 puntu emango dira.

Administrazio publikoan egindako zerbitzuak geriatría laguntzailea edo adinekoen egoitzetan klinika laguntzaile bezala edo baliokidea, 0.3 puntu hilabeteko eta gehienez 45 puntu

-Enpresa pribatuan egindako zerbitzuak geriatría edo adinekoen egoitzetan klinika laguntzaile bezala edo baliokidea, 0.20 puntu hilabeteko eta gehienez 40 puntu.

-Administrazio publikoan egindako zerbitzuak klinika laguntzaile bezala edo baliokidea, 0.16 hilabeteko eta gehienez 36 puntu.

-Enpresa pribatuan egindako zerbitzuak klinika laguntzaile bezala edo baliokidea, 0.13 hilabeteko eta gehienez 27 puntu.

Esperientzia profesionala alegatutako epeetako egunak baturak zenbatuko da. 30 egunen baturak hilabete bat osatuko du eta 30era heltzen ez diren egunak baztertu egingo dira.

7.4.2. Merezimenduak alegatzeko, inprimaki normalizatu bat eskuratu ahal izango dute izangaiek. Inprimaki hori behar bezala beteta aurkeztu beharko dute beren merezimenduak baliozta daitezen

nahi duten izangai guzti-guztiek; horretarako, izangaiak dituen merezimendu bakoitza banaka zehaztu beharko du.

Merezimenduak egiaztatzeko, hiru egoera hartu behar dira aintzakotzat:

a) Izangaiak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundean lan egin ez duenean, alegatutako merezimendu guztiak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu. Agiri horiek behar bezala zenbakituta aurkeztu behar dira, eta originalak edo benetako kopiak izango dira.

b) Izangaiak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundean lan egin badu, baina alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak bere espediente pertsonalean jasota ez baditu, agiri horiek aurkeztu beharko ditu, behar bezala zenbakituta. Agiri originalak edo benetako kopiak izan behar dira.

c) Izangaiak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundean lan egin badu eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak bere espediente pertsonalean BAI, jasota baditu, ez da agiri horiek aurkeztu beharrik izango, baina nahitaezkoa izango da agiri horiek hor direla alegatzea horretarako zehaztutako inprimaki normalizatuan.

Bermatuta dago izangai bakoitzak bere espediente pertsonalean dokumentuz egiaztatutako merezimenduak ezagutzeko bidea izatea. Horretarako, aurrez eskatu eta bere espedientearen edukia egiaztatu ahal izango du Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Pertsonal atalean.

Izangai bakoitzak alegatu dituen eta espediente pertsonalean dokumentuz jasota dauden merezimenduei jarraituz, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak informazioa erraztuko du. Informazioa Epaimahai Kalifikatzaileari bidaliko zaio, espediente pertsonalarekin batera, dagokion balioztatzea egin dezan.

7.4.3. Era berean, hautaketa prozesutik kanpo gelditutako izangaiak ere alegatu, egiaztatu eta aurkeztu behar dituzte, zer gerta ere, beren merezimenduak, baldin eta kanporatze horren aurka erreklamaziorik aurkeztu badute eta erreklamazioa behin betiko ebazpenaren zain baldin badago. Merezimendu horiek 7.4.1 eta 7.4.2 oinarrietan adierazitako epe eta baldintza berberetan alegatu eta egiaztatu behar dira.

7.4.4. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik bildutako merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan. Hala ere, aintzakotzat hartu behar da 7.3.4 oinarrian euskarari buruz ezarritakoa.

Merezimenduak aurkezteko jarritako epean adierazi eta egiaztatzen ez diren merezimenduak ez dira inolaz ere balioetsiko. Ez dira balioetsiko, orobat, aipatzen dituzten merezimenduak balioetsi ahal izateko dagokion baremoaren arabera izan behar diren datuak ez dituzten dokumentuak ere.

Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 96.4 artikulua arabera, behin-behingo langileentzako aurreikusitako postuetan egindako zerbitzuak ez dira balioetsiko, ez eta bekak eta prestakuntza praktikak ere. Era berean, lehiaketa aldian ez dira kontuan izango 2.1.5. oinarriaren arabera hautaketa prozesuan parte hartzeko betekizun gisa aurkeztu beharreko tituluak.

7.4.5. Urteka, sei hilekoka edo hilabeteka baloratzen diren merezimenduak kalkulatzeko, alegaturiko aldiak batuko dira, egun kopuruak kontuan hartuz, eta, ondoren, erreferentzi aldia baino txikiagoak diren hondarrak baztertuko dira. Ondorio horietarako, 365 egun naturalen batura hartuko da urtetzat; 180 egun naturalen batura sei hileketzat; eta 30 egun naturalen batura hilabetetzat.

Lan egin duten egunak kontuan izango dira, edozein lanaldia izanda ere. Kontabilizatzeko egunak, Gizarte Segurantzaren dauden alta egunak kontuan izango dira.

7.4.6. Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduak balioztatuko ditu eta lehiaketa aldiko behin-behineko kalifikazioak argitaratuko ditu. Kalifikazio horiekin batera, dokumentuak zuzendu behar dituzten izangaien zerrenda argitaratuko da. Zerrenda horretan, berariaz aipatuko da zein merezimenduren egiaztagiria zuzendu behar diren. Argitartze horren biharamunetik hasita, izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute egoki deritzeten erreklamazioak egiteko eta dagozkien zuzenketak egiteko. Epe hori bukatutakoan, aurkeztutako erreklamazio eta zuzenketak aztertuko ditu epaimahaiak, eta gero lehiaketa aldiko behin betiko emaitzak argitaratuko ditu. Era berean, interesdun bakoitzari bere erreklamazioaren ebazpen arrazoituaren jakinarazpen pertsonala bidali ahal izango dio.

Hernani, 2020ko irailaren 14a. Presidenteordea, Maria del Coro Echeverria Tolosa.